


## Barkatu Bihotz-Bihotzez!


**“Zazpi aldiz ez, zazpi milatan zazpi aldiz”  
(Mt. 18,22)**

Egun batean Jesusek Pedrori esan zion: zerbitzariekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da Zeruko Erreinuarekin. Hamar mila talentu zor zizkion zerbitzari bat eraman zioten. Zerbitzariak, nagusiaren oinetan ahuspezturik, eskatu zion: "Emadazu astia, eta dena ordainduko dizut". Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen. Honek, berriz, irten





orduko, ehun denario zor zion bera bezalako beste zerbitzari batekin egin zuen topo. Laguna erreguka aritu zitzaion, baina hark ezetz eta kartzelan sartu zuen. Beste zerbitzariak, biziki nahigabeturik, nagusiarri berri ematera joan ziren. Orduan, nagusiak zerbitzari hari berriro dei egin eta esan

zion: "Ez al zenuen zure lagunaz errukitu behar, ni zutaz errukitu nintzen bezala?" Eta zigorpean utzi zuen nagusiak, zor guztia ordaindu arte. Eta Jesusek horrela amaitu zuen: «Berdin-berdin egingo dizue zeruko nire Aitak, senideok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue». Hain zuzen ere, Jainkoa errukitsua da eta beti barkatzen du. Horregatik guk ere errukitsuak izan behar dugu eta barkatu beti.



Brasileko Rayonek bere buruari galdetzen zion: "Nola maitatu maitatua izan nahi ez duena?". Futboleko partida batean baloiari ematean

nire lagun bati eman nion eta nire aurrean erori zen: barkamena eskatu nion, baina ez zidan barkatu. Gero, eskolan lapitza erori zitzaion eta nik hartu eta eman egin nion,



baina oraindik haserre zen". Rayonek badaki Jesusek zaila bada ere maitatzen jarraitzeko esaten duela. Eta horregatik bere laguna maitatzen jarraitu zuen eta egun batean berriro berarekin jokatu zuen.